



Bizkaiak, GovTech programaren bidez, bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzen dihardu, eta gonbita egiten die herritarrei «Pumptrack Bizkaia» erronka birtualetan parte hartzeko, WELLK app-aren bidez

Bizkaiko Foru Aldundiak «Pumptrack Bizkaia» proiektuari hasiera eman dio, hainbat erronka birtualen bidez, Etxebarriko eta Portugaleteko pumptrack-etan.

Parte hartzeko, Wellk aplikazio mugikorra erabili behar da. Bertan, erabiltzaileek erronkekin bat egin, pumptrack-etan jarduerak gehitu eta domina birtualak desblokeatu ahal izango dituzte; eta, horrela, herritarren artean bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzen da.

Proiektua uztailaren 31ra arte egongo da martxan, eta Bizkaiko biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, teknologia erabiliz.

Bizkaiko Foru Aldundiak «Pumptrack Bizkaia» proiektu pilotu berritzailea abian jarri du, Portugaleteko eta Etxebarriko udalekin lankidetzan. Proiektu hau GovTech programaren barruan garatu da, eta espazio irekietako kirol-instalazioen, eta, bereziki, pumptrack-en erabilerari buruzko informazioaren kudeaketa hobetzea du helburu.

Wellk teknologia-enpresarekin batera, Foru Erakundeak hainbat erronka birtual ezarri ditu «Pumptrack Bizkaia» izenburupean. Erronka birtual horien helburua da herritarren artean bizitza aktiboa eta osasungarria sustatzea, eta, horrela, parte-hartzaileen bizi-kalitatea eta ongizate fisiko eta emozionala hobetzea.

Proiektu pilotua [WELLK](#) aplikazio mugikorraren bidez abiaraziko da, eta uztailaren 31ra arte luzatuko da. Interesdunek parte har dezakete aplikazioa doan deskargatuz App Store-tik edo Google Play Store-tik. Erregistratu ondoren, erabiltzaileak interesguneetara batu ahal izango dira aplikazioaren barruko erronken ataletik, eta Etxebarriko eta Portugaleteko pumptrack-etan jarduerak gehitzen hasi. Jarduera horiek automatikoki egiaztatuko dira aplikazioaren bidez.

Wellk aplikazioak 40 jarduera mota baino gehiago erregistratzeko aukera ematen du, eta bateragarria da osasun eta fitness esparruen jarraipena egiteko plataformekin, hala nola Apple Health, Google Fit, Fitbit eta Strava; horrela, erabiltzaileen jarduera fisikoaren jarraipen osoa egitea errazten du.



App-ari buruzko informazio osagarria

WELLK mugikorretarako doako aplikazio bat da, sozializazioa sustatzen duena eta herritarrei kirola modu pertsonalizatu eta berritzailean banaka edo taldean egiteko aukera ematen diona.

Aplikazioak erabiltzaileei ahalbidetzen die lurraldean kirola egiteko dauden aukerak ezagutzea eta hainbat komunitarekin eta pertsonarekin konektatzea kirol desberdinetan: zikloturismoa, mendi-ibilak, runninga eta ibilaldiak, besteak beste.

Era berean, tresnak aukera ematen du lagunekin ligak sortzeko eta erronka komunitarioetan edo indibidualetan parte hartzeko, eta, horrela, hainbat sari lortzeko.

WELLK aplikazioaren erabiltzaileek, aplikazioan sartzean, beste pertsona, klub eta elkarte batzuek sortutako planak eta elkarretaratzeak ikusi ahal izango dituzte, eta haiekin bat egin. Era berean, beren planak sortu ahal izango dituzte modu publiko edo pribatuan, eta app-aren erabiltzaileek plan horiekin bat egin ahal izango dute. Gainera, hainbat erronka eta ligatan parte hartu eta haiek ezkututzen dituzten sariak lortu ahal izango dituzte.

Plataforma hori oportunitatea da herritarrentzat, kirol-klubentzat eta gainerako toki-erakundeentzat, eskaintzen dituzten jardueren berri eman baitezakete eta, horrela, hiriko eta lurraldeko kirol-jarduera sustatu.